



## CAMPEONATO DE ESPAÑA COPA DE S.M. LA REINA 2019



REAL SOCIEDADEK KOPA FEMENINOA IRABAZI DU

# TXAPELDUNAK!



ALAVES B BIGARREN B  
MAILARA IGO DA



EUSKAL SELEKZIOAK AURRE  
EGIN DIO PANAMARI



ARETO FUTBOLEKO BILBO  
EMAKUMEEN 1ª IGO DA

# BIDASOA BUS



Eskoriatza Kalea, 5 | 01013 Vitoria - Gasteiz | T. 945 27 90 11

**AUTOCARES  
COCHES DE LUJO  
TAXIS  
LIMUSINAS**

**GRUPOS  
EMPRESAS  
ESCOLARES  
EVENTOS**



3	EDITORIALA
4	BATZAR OROKORRA
5-8	LEHEN MAILA
9	BIGARREN B MAILA
10	HIRUGARREN MAILA
11	ERREGIONALA
12-13	EUSKAL SELEKZIOA
14-15	BEHERAGOKO SELEKZIOAK
16	OINARRIZKO FUTBOLA
17-19	EMAKUMEEN FUTBOLA
20	NUTRIZIOA ETA KIROLA
21-22	ARETO FUTBOLA

©:  
EUSKADIKO FUTBOL  
FEDERAKUNDEA  
FEDERACIÓN VASCA DE FÚTBOL

Erredakzio Batzordea  
Comité de Redacción  
Luis María Elustondo,  
Kepa Allica, Haritz Gallastegi,  
Unai Zabaleta y Fran Rodríguez

Koordinaketa. Coordinación  
Diseno eta Maketazioa  
Diseño y Maquetación  
Cantera Deportiva S.L.  
Argazkiak. Fotografías  
Federación Vasca de Fútbol

HAMAIKA  
Euskadiko Futbol Federakundea  
Julian Gaiarre 48 bajo  
48004 BILBAO  
Tfnoa: 94 473 19 00  
webmaster@eff-fvf.eus  
Depósito legal: BI-581-2014

Colaborador  
Laguntzailea



Hamaika ez da bere laguntzaileen  
iritziak erantzule egiten  
Hamaika no se hace responsable  
de la opinión de sus colaboradores/as

## EDITORIALA

# ITZALGUNEAK ETA ARGIGUNEAK...

**E**uskadi, futbolaren templu, goi mailako txapelketena eta jokalaria handien lurra, 2019-2020 denboraldia munduko liga hobeenetariko baten, lau talderekin parte hartuko du. Erabateko harrotasunez aldarrikatu dezakegu Errealeko jokalariek Granadan Madrilgo Athletic handiaren aurka bereganatu zuten Erreginari Kopa hura. Alavesen filiala 2. B mailara igo izana zoriontzeko beste lorpen bat da. Bestalde, Tolosa, Urduliz eta Ariznabarra eta abar Hirugarren mailara igo izana nabarmentzekoa eta bihotzez zoriontzeko modukoa da. Baina sailkapen europarretarako sailkapenik eza edota hutsegindako igoerak argazkiaren beste alderdia osatzera datoz.

Futbol femeninoan gertatutako zale, partaidetza eta lehiakortasun mailaren hedapena eskubide osoko tokia lortu duen errealitate bat da. Areto-futbolak oraindik gure komunitatean helburu ugari ditu lortzeko, zenbait kimu berde ikusi ahal ditugun arren...lanean jarraitu behar da. Etengabeko tentu bat mantentzen dugu identitatearen gure errebindikaziotan, bai Euskadiko selekzio bien inguruan eta bai irrikaz bilatutako ofizialtasuna lortzeko nahian.

Laster ikasturte berri bati ekingo diogu. Baikortasunez eta prestakuntza irrikaz itzul gaitzen, eguneroko oinarrietatik euskal futbolaren onura lortzeko lan egitera, lan bikainak dakarren asetasunaren eskutik eta nahiago genuke jarduera zintzo horretan gazteak txerta daitezen lortzea. Beti bezala, zorionak arlo eta erantzukizun ezberdinetan futbola izatera datorren kirol bikain honetan horrenbeste sakrifizioz eta eskuzabal-tasunez ahalegina egiten duzuen guztiontzat.

Eskerrik asko guztioi.

**Luis María Elustondo.**  
**Presidente Federación Vasca de Fútbol.**



Xabi Irueta, Kepa Allica, Luis Mari Elustondo, Nerea Zalabarria eta Juan Luis Larrea, Durangon egin zen Batzar Orokorrean

# BATZAR OROKORRAK 2019/20-KO OINARRIAK FINKATU DITU

*Durangon egin zen Euskadiko Batzar Orokorra Real Sociedad femeninoak lortutako merezimendu handia aitortu nahi izan zuen, Erreginaren Kopa irabazi baitu.*

**Fran Rodríguez**

**D**urangoko San Agustin Kultur gunean egin zen Euskal Futbol Federakundearen Batzar Orokorra, ekainaren 27an. Luis Mari Eluston-

dok gidatu zuen eta Gipuzkoako Federazioaren lehendakaria, Juan Luis Larrea, bertaratu zen. Hasierako hitzaldian, federazioaren lehendakariak Real Sociedad emakumezkoen zoriondu zuen denboraldi honetan eskuratutako arrakasta itzelarengatik, izan ere, Erreginaren Kopa irabazi du, baina, gainera, euskal emakumezkoen futbolaren goraldia nabarmendu zuen. Halaber, kirol horrek Euskal Herrian agertzen ari den sendotasuna argi utzi nahi izan du, Osasunaren igoerarekin, bost taldek militatuko dute-eta 1. Mailan

datorren denboraldian. Gainera, Alavés B bereziki aipatu du, Bigarren B Mailara igotzeagatik, baita Bilbo ere Lehenengo Maila femeninora igotzeagatik eta Kukuiaga Etxebarri, areto-futboleko Bigarren B-ra igotzeagatik. Batzarrean, 2018. ekitaldiko eta aurtengo, 2019. ekitaldiko, kontuak aho batez onetsi ziren, eta Hirugarren Mailako euskal epailerik eta epaile laguntzailerik onenentzako sariak banatu zitzaizkien Ekhiotz Sanchez eta Xabier Gomez Landazabali, hurrenez hurren.

## ABELARDOREN GARAIAREN AMAIERA DEPORTIVO ALAVESEN; GARITANORENA HASTERA DOA

*Aurreko denboraldian Real Sociedaden izan zuen porrotaren ondoren, Gasteiza iritsi da Abelardok utzitako hutsunea betetzeko erronka zailarekin.*

A. M.



**A** Asier Garitano hurrengo denboraldian Mendizorrotzako aulkietan eseriko da, aho-zapore ona utzi duen Abelardo Fernandez orde-

katuz. Entrenatzaile berria Real Sociedaden izandako porrota gainditzen saiatuko da; Leganesen izandako ibilbide paregabeak bermatuta joan zen klub horretara.

**OSCAR GARRO,  
HARROBIAREN  
ARDURADUN BERRIA**

**T**ekniko entzutetsua, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan lizentziaduna eta Fisioterapiari diplomaduna, Qatarretik etorri da, han egon baita Aspire Academyn lan egiten. Garrok oinarriko futbolaren arduradunaren postuan ordezkatu du Mikel González, zeinak aurrerantzean erantzukizuneko kargu bat izango baituen Sergio Fernandez buru duen kirol-zuzendaritzan.

Babazorroek maila mantentzeko borrokatu nahi badute, behartuta daude berriro ere aurpegi berri mordoia izango dituen plantilla osatzera.

**AEXA**  
OBRAS Y SERVICIOS. S.L.

**Lavado, planchado  
y repasado  
de ropa deportiva  
Desde 1970**

## ATHLETIC CLUBEK HARROBIAREN ALDEKO APUSTUA EGIN DU BERRIZ EUROPARA BEGIRA JARTZEKO

*Aurreko denboraldian Gaizka Garitanoren eskutik, klub zuri-gorriak erreakzionatu zuen, zeinak berriro ere proiektu zuri-gorria gidatuko duen 2019/20 denboraldi honetan.*

**A.M.**

**A**urreko denboraldiaren hasiera txarra zuzentzeko Gaizka Garitano etxeko gizonaren aldeko apustua egin eta gero, entitate zuri-gorriak

berriro bere oinarrizko futbolari begiratu dio datozen urteetako kirol-etorkizunaren oinarriak finkatzeko. Era horretan, Asier Villalibrek eta Gaizka Larrazabalek lehenengo taldera jauzi egin dute eta beste lau kumek denboraldi-aurrean haien txokoa egiten saiatuko dira. Hodei Oleaga, Ohian Sancet, Iñigo Vicente eta Daniel Vivian. Horiek guztiak ederki ezagutzen ditu Garitanok, bere aginduetara izan baitzituen Bilbao Athleticen, eta, horrela, bere taldea gaztetzen saiatuko da eskarmentu handia zuten Mikel



**JOSEBA ETXEBERRIA  
BUELTAN DA ESKUMENDEKOA  
ZUZENTZEKO**

**1** 23 Ligan Teneriferekin izandako bizipen intentsoarean ondoren, Elgoibarreko entrenatzailea Lezamako instalazioetara bueltatu da Bilbao Athletic bideratzeko.

Rico, Ander Iturraspe eta Markel Susaeta futbolariak alde egin ondoren. Lehoiak, hori bai, Europan sartzeko borroka egiteko esperantzarekin ekingo diote berriro denboraldiari.



**Eventos  
con garantía de éxito**

**HGB**  
HOTEL GRAN BILBAO



El Hotel Gran Bilbao es el único hotel que dispone de palacio de congresos además de 1,800 metros cuadrados de salones para eventos.

Es un espacio idóneo para organizar eventos de empresa, convenciones, formaciones y presentaciones de producto.

El hotel ofrece apoyo integral a la gestión del evento y gran variedad de menús para banquetes y coffee breaks.

- El hotel está situado a escasos pasos del casco viejo,
- tiene muy fácil acceso para llegar en coche
- y ofrece parking gratuito para los asistentes.

## EIBAR KE, KALITATEA HOBETZERA JOSE LUIS MENDILIBARREN ESKUTIK

*Armaginak, estatuko futbolaren goi-mailan egonkortuta, Jose Luis Mendilibarregan konfiantza jarri dute, eta klubean jarraian emango duen bosgarren denboraldia*

A. M.



Jose Luis Mendilibar Eibarrera iritsi zenetik kluba era esponentzian hazi da eta entrenatzaileak kluba gidatuko duen bosgarren denboraldiari

ekingo dio orain. Armaginak mailarik altuenean egonkortu dira eta erronka berriak dituzte orain, haien etorkizuneko kirol-egoitza eraikitzea kasu, bost futbol-zelai

**HIRU JOKALARIK BAINO EZ DUTE JARRAITZEN 2015/16TIK**

Zaldibarreko teknikaria 2015eko udan Ipuruara iritsi zenetik, soilik hiru futbolari -Sergi Enrich, Gonzalo Escalante eta Ivan Ramis- mantendu dira entitatearen kirol-zuzendari Fran Garagarzak egin dituen berrikuntza sakonetan. Hiru jokalarien artean guztira 353 parte-hartze egin dituzte Lehenengo Mailan.

izango dituena. Era horretan, gorri-urdinek oso sendoa den proiektu baten oinarriak finkatu dituzte, urtetik urtera, goranzko urrats garantzitsuak ematen dituena.

joan-etorriaren atsegina



**VALLINA**  
BUS AUTO



**IBILGAILUAK GIDARIAREKIN**

943 39 38 48  
Donostia-San Sebastián

autoak  
autobusak  
microbusak

# REAL SOCIEDADEK ALGUACILEN PROIEKTUARI JARRAIKORTASUNA EMAN DIO

*Azken bi denboraldietako bigarren itzulian lehenengo taldea gidatu eta gero, Alguacilek Real Sociadadeko teknikari gisa hasiko du kanpaina berri hau.*

A. M.



**HARROBIKO  
LAU JOKALARIK  
LEHENENGO TALDERA  
SALTO EGIN DUTE**

Harrobiaren aldeko Hapustu irmoa eginez, Real Sociadadek berriki jakinarazi du aurreko ikas-turtean Imanol Alguacilen aginduetara debutatu zuten lau jokalarik lehen ekipora jauzi egingo dutela. Robin Le Normand, Aihen Muñoz, Ander Guevara eta Ander Barrenetxea plantilla zuri-urdiraren parte izango dira 2019/20 denboraldian.

Prestakuntzako futbolean ibilbide aparta eginda eta lehenengo ekipoarekin azken bi kanpainetan bigarren itzulian lan paregabea eginda,

Imanol Alguacilek donostiar eskudra zuzentzeko aukera irabazi du denboraldiaren hasieratik. Horrela, bere zigilu pertsonala jarriko du plantillaren konfigu-

razioan Roberto Olaberekin batera, zeinak kirol-zuzendari izaten jarraituko duen harrobia oinarri duen proiektu bat osatzeko asmoarekin.

Distribuidor oficial:

FAMILIA  
**LUIS CAÑAS**  
BODEGAS Y VIÑEDOS

AMAREN CAÑAS CAIX

ASTORIA

HAND MADE

ESTATE BOTTLED - HAND HARVESTED - SINGLE VINEYARD

Recolectamos las uvas autóctonas  
manualmente en pequeñas cajas  
y seleccionamos en mesa  
sólo los mejores racimos

*Nuestra especialidad, los buenos VINOS.*



Teléfono 943176075  
arral@arral97.com

arral97.com



# BARAKALDO IGOERA- PROMOZIOAN LEHIATU ZEN ETA KOPAN JOKATUKO DU LEIOA ETA AMOREBIETAREKIN BATERA

*Barakaldo kanporatua izan zen igoera-fasearen lehenengo itzulian Ligako 38 jardunaldietan promozioko postuetan egon eta gero.*

David Novo

Aitor Larrazabalen Barakaldok denboraldi itzela egin zuen 1/2/3 Ligarako igoera-fasea jokatzeko sailkatuz. Alabaina, lehenengo itzulian Hércules ahalguztiduna fabrilan bidean sartu zen, eta kanporatu zituen aurkarien zelai-ko golen balio bikoitzarekin (1-1 Lasesarren eta 0-0 Rico Perez- ez). Talde hori-beltzak, gainera,



datorren urterako K.O. torneo- rako sailkapena lortu zuen. Lehiaketa horretan egongo dira, halaber, Leioa eta Amorebieta, Ligan egin duten lan onari esker.

**REAL UNIONEK  
PLAY OUT-A IRABAZI  
DU ETA MANTENDU  
EGIN DA**

Real Unionek Bigarren B mailan mantentzeko kanporaketa jokatu behar izan zuen Jumi-llaren aurka, IV. taldean hamaseigarren sailkatua. Irundarrak bina berdinu ziren Murtzian egin zen joanerako norgehiagokan eta 2-0 irabazi zuten buel- tan, Stadium Galen; hor- taz, beste urtebetez Bron- tzeko Mailan mantentzea lortu dute.

**HIRUGARREN  
MAILARA ERORI  
DIRA CULTURAL,  
VITORIA ETA GERNIKA**

Cultural de Duran- gok, Vitoriak eta Gernikak azken lau sailka- tuen artean bukatu zuten eta, ondorioz, Hirugarren Mailara jaitsi ziren. Amaie- ra hori izan arren, hiruak gogor aritu ziren lehiaketa osoan zehar.

 Sport·designer




GRUPOCAMPUS

precio / prezioa  
**9,90 €**

Diseño de ejercicios de entrenamiento, simulaciones de situaciones de juego en movimiento, creación de jugadas de estrategia, creación de formatos de convocatorias, books de ejercicios y estrategia, acceso a contenidos y formatos on-line, etc...

Disponible en Euskera – Castellano.

Más información: [www.sport-designer.com](http://www.sport-designer.com)



# ALAVES B BRONTZEZKOA DA BAINA PORTUGALETE, SESTAO ETA SAN IGNACIO HURBIL GERATU DIRA

*Iñaki Alonsoren mutilak 2. B-n lehiatuko dira, baina Sani lehenengo kanporaketan erori egin zen eta bi bizkaitarrak azkeneko itzulian beheratu ziren.*

David Novo

Alaves B-k datorren denboraldian 2. B Mailan jokatu du behin betiko kanporaketan Tarazona garaitu eta gero, aurkarien zelaiko golen balio bikoitzari esker joanean, Ibaian, huts berdindu ondoren, eta bina itzuleran, Aragoian. Zuri-urdinek duela 13 urte militatzen ez zuten maila berreskuratu dute horrela. 'Mini Gloriak' direlakoek lehenago Compostela eta Escobedo utzi zituen atzean. Iñaki Alonsoren gidaritzapean

egon den taldeak Brontzezko Mailan dauden euskal taldeen zerrenda zabaltzen du horrela, zeinak datorren urtean Euskadiko 8 ordezkari izango dituen.

Bigarren B-ra itzultzeaz egon ziren, zoritxarrez, Portugalete eta Sestao River, Liga erregularreko lehenengo biak. Jarrilleroak azkeneko itzulian kanporatuak izan ziren El Prat de Llobregaten (Bartzelona) 2-1 galdu eta La Floridan batera berdinduta amaitu eta gero. Galiziako Alondras eta Kataluniako Llagostera izan ziren lehenagoko aurkariak igoera-fasean. Bestalde, Sestao River Marino de Luancoren aurka erori zen. Azken horri Las Llanasen 0-1 nahikoa izan zitzaion Bigarren B-ra salto egiteko Asturiasen 0-0 amaitu ondoren. Aldez aurretik, berde-beltez Toledo eta Poblense kanpoan utzi zituzten.

Hirugarren Mailako IV. Taldearen igoeraren laugarren ordezkari

## HIRU JAITSIERA ZUZEN ETA BI ARRASTE

Vitoria, Cultural de Durango eta Gernikaren jaitsierek Zamudio eta Amurrio erregionalera arrastatu dituzte. Honakoak zuzenean jaitsi ziren: Bermeo, San Pedro eta Ordizia. 2019/20 ikasturtea bost aurpegi berriekin hasiko da.

## PORTU, SESTAO ETA TOLOSAK KOPARAKO TXARTELA LORTU DUTE

IV. Taldeko txapeldunak eta txapeldunordeak hurrengo Erregearen Kopa jokatuko dute. Tolosak Erregionaleko txapeldunen arteko kanporaketaren irabazle gisa, ere bai.

karia San Ignacio izan zen, zeina, gudu hauetan egin zuen debutean, ezin izan zen lehenengo itzulitik pasa. Arabarrek, hain zuzen, River borroeroaren kontra galdu zuten, Ibaian golik gabe berdindu eta gero Miramarren 2-0 nagusitu zen talde asturiarra.



Portugalete Hirugarren Mailako Euskal Taldeko Liga Txapelduna

# URDULIZ, TOLOSA ETA ARIZNABARRA MAILA NAZIONALERA IGARO DIRA

*Urduliz (Bizkaia), Tolosa (Gipuzkoa) eta Ariznabarra (Araba) taldeek datorren urtean Hirugarren Mailan jokatuko dute nork bere lurraldeko txapelketan ibilbide aparta egin baitute.*

**David Novo**

Urduliz, Eibar Urko eta Ariznabarra haien lurraldeko ligen txapeldun izan ziren, nahiz eta eskumendeko armaginak ezin duen Hirugarren Mailara jauzi egin ezin duelako Vitoriarekin batera jokatu; aipatu kluba Bigarren B-tik jaitsi da eta gorri-urdinen bigarren ekipo gisa aritzen da. Haien ordez, datorren kanpainan maila nazionalen jokatu duena Tolosa da, Gipuzkoako maila erregionalean bigarren sailkatua.

Uribe Kostakoek denboraldi gogoangarria egin dute Bizkaiko Ohore Maila irabaztea lortu baitute itxura guztien kontra. Zuri-beltzak aurrenekoz txapeldun izan ziren 70 puntutara berdinduta Iurretakoren aurka, baina goal-average partikularrik hobearekin. Gipuzkoan, lehenengo sailkatua Eibar Urko izan zen. Gorri-urdinek argi eta garbi lortu zuten titulua 76 puntutara iritsita, Tolosak eta Anaitasunak baino bederatzire gehiago. Hala ere, Berazubikoak igoko dira maila nazionalera, klub beraren mende dauden bi klubek ezin baitute maila berean batera jokatu. Arabako Gorenean, Ariznabarra irmotasunez nagusitu zen Ligan bere 93 puntuei esker, Salvatierra txapeldunordeak baino 12 gehiago, eta porrot baka-rrearekin. Gasteizko auzo jendetsu-koek Hirugarren mailan ere debuta-tuko dute.



Urduliz (Bizkaia)



Tolosa (Gipuzkoa)



Ariznabarra (Araba)

# EUSKAL SELEKZIOAK PANAMARI AURRE EGIN DIO ABSTENTZIA IZAN ARREN

*Euskal Selekzioak aurpegi ona erakutsi zuen Panaman, lehiakortasuna garaipatuz.*

A.M.

Javier Clementeren selekzio berria merezitako berdinketa batekin estreinatu zen Panaman, abstentzia garrantzitsuak baldintzatu zuten topaketa batean.

Barakaldoko teknikariak gazteak debutatarazi zituen, maila dutela erakutsi zuten eta lehiakortasuna mantendu zuten.

Norgehiagokaren atarikoak markatu zituzten bertako selekzioa uzten zuten futbolarietara ziz-

kieten omenaldiek; kirolari horiek lehenengo ordu laurdenean zelaia utzi zuten.

Horri, hidratatzeko eten bat gehitu zitzaion, eta, ondorioz, lehenengo zatiak jarraikortasun eskasa izan zuen jokoari dago-kionean eta areetara ere hurbilketa gutxi egin ziren.

Partida berriz hasi zenean, bi alderdietan aldaketak egiten jarraitu ziren, baina markagailuko gorabeherak emozioa amaieraraino iraunarazi zuen, bi selekzioak uneoro gogor lehiatu baitziren.

**EUSKAL SELEKZIOA:** Herrerin, Balenzaga, Bustinza, Iñigo Martínez (Vivian, 61'), Mikel San Jose, Larrazabal (Areso, 75'), Manu García, Eraso, Aihen (Iñigo Vicente, 66'), Elustondo y Aduriz (Villalibre, 55').

**PANAMÁ:** Jaime Penedo (Calderon, 1'), Kevin (Eric David, 82'), Escobar, Felipe (Roberto Chen, 11' (Vargas, 91')), Ma-



Euskal selekzioko jokariak, Panaman

chado, Cesar (Pimentel, 71'), Leslie (Adalberto, 63'), Armando, Marcos (Arroyo, 60'), Blas (Rolando, 10') y Tejada (Zuñiga, 10' (Fajardo, 62')).

#### ■ EPAILEA

Jaime Herrera jauna. Panamako Roberto Cheni eta Manu García, Iñigo Martínez, Gaizka Larrazabal eta Unai Bustinza bisitariei kargu hartu zien.



## JAVIER CLEMENTE, OSO POZIK BERE DEBUTEAN

Euskal Selekzioaren entrenatzaile berria pozik agertu zen berdinketarekin eta bere selekzioak Panaman eman zuen irudiarekin. “Oso partida gogorra izan da, bi alderdietan erritmo dezentea izan da. Antza denez, haiek bateratuago daude. Gu denboraldiaren amaieran gaude eta fisikoki kostatu zaigu”, aitortu zuen teknikari barakaldarrak. Hasiberriek erakutsitako maila goretsi zuen: “Mutilek jarrera ona izan dute eta hori eskarmentua hartzen joateko balio zaie”.



## 13 #EUSKAL SELEKZIOA



EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA  
FEDERACIÓN VASCA DE FÚTBOL



Julian Gaiarre 48 bajo - 48004 Bilbao  
Tlf.: 94 473 19 00 | Fax: 94 473 22 21

Web | [www.eff-fvf.org](http://www.eff-fvf.org)  
Twitter | @EFF\_FVF  
Instagram | EFF\_FVF



[www.instagram.com/EFF\\_FVF](http://www.instagram.com/EFF_FVF)



Ahora también en

 Instagram  
¡Síguenos!

Toda  
la información  
de la eff-fvf  
en un

**click**



[www.eff-fvf.org](http://www.eff-fvf.org)



**Hamaika**  
EUSKADIKO FUTBOL FEDERAKUNDEAREN ALDIZKARIA

Descárgate esta revista en pdf

# EUSKADIKO GIZONEN SELEKZIOAK ESTATALAREN BIGARREN FASERA IRITSI DIRA

## AZPI-12, KANPORATUA

Kimuen selekzioa estatu mailako taldeen fasean kanporatua izan zen, hirugarren postuan sailkatzean.

*Euskadiko konbinatuak Lehiaketa Estatalaren bigarren fasera iritsi ziren, baina emaitzek ez zieten amaiera fasera iristen utzi.*

**Raúl A. Collantes**

Azpi-18 eta azpi-16 kategorietako Euskadiko selekzioek ikusi zuten zein zaila den Lehiaketa Estatalean lehiatzea. Bi eskudrek gogor lan egin zuten entrenamendu-saioretan eta partidei irmotasunez aurre egin zieten, lehiaketa hori motza baita eta akatsik txikiena ere larrutik ordaintzen da oso.

Bi selekzioek abenduaren amaieran Arrigorriagan jokatu zen fasea sailkatzeko aukerakin bukatu zuten. Gazteek lau puntu batu zituzten, garaipen eta berdinketa banarekin, eta kadeteek hiru puntu, garaipen batekin.

Azpi-18 selekzioak dena bere esku zuen emaitza apalagoak izan zituen bigarren faserako. Euskadik 2-2 berdindu egin zuen etxean jokatu zuen Valentziaren aurka eta Kantabriaren aurka ere adostuta amaitu zuen, 1-1. Bestalde, azpi-16 selekzioak 3-1 galdu zuen valentziarren zein Kantabriarren kontra. Bi kasuetan, markagailuek bi euskal taldeak kanporatzea eragin zuten, eta ezin izan zuten amaiera fasea jokatu.



Gazteak



Kadeteak



Kimuak

# EUSKADI AZPI-17 ETA AZPI-15 FEMENINOAK, FINALETIK HURBIL ESTATALEAN

AZPI-12-A, OSO ONGI

**N**ekane Quiñonesen neskak final-laurdenetan erori ziren Andaluziaren aurka (0-2).

*Euskadiko selekzioek estatal autonomikoaren amaiera fasean egoteko borrokatu zuten, baina bi selekzioek lehiaketaren lehenengo fasean egin zuten huts-egitea ordaindu zuten.*

**Txemi García**

**E**uskadi azpi-17 eta azpi-15 estatal autonomikoan lehiatu ziren anbizio eta ilusio ezin handiagoekin. Bi ekipoek maila altua erakutsi zuten, baina huts-egiteak onartzen ez dituen lehiaketa honetan gurek egin zituzten. Ondorioz, haien bidea bigarren fasean amaitu zen.

Edizio honetako berrikuntza bat adin-aldaketa izan zen, azpi-18 azpi-17 izatera eta azpi-16 azpi-15 izatera igaro ziren. Hirukolorekoa bloke indartsuekin iritsi zen Alhendinen eta Lojan (Granada) jokatu zen lehenengo fasera. Xedea bi partidak irabaztea zen bigarren fasean beste inoren mende ez egoteko. Jon Kepa Gonzalezen azpi-17 ongi hasi zen. 2-1 irabazi zion Valentziari, aurkaririk indartsuenari, baina ustez eskuragarriagoa zen aurkariaren kontra berdindu zuen, Errioxa (0-0). Idurre Friasek gidatzen duen azpi-15 selekzioa Valentziarren kontra berdindu zen (0-0) eta errioxarrei gol mordoa sartu zizkien (8-0). Eskuraturako lau puntuekin behartuta zeuden Sant Boi de Llobregaten (Bartzelona) irabaztera, baina gero itxoin behar. Tamalez, katalanek ez zieten aukerarik utzi ez azpi-17-koei ez azpi-15-ekoei, biak garaituz (1-2). Hala eta guztiz ere, Euskadiko jokalariek aho-zapore onarekin amaitu nahi izan zuten eta Murtzia garaitu zuten, 1-3 helduek eta 0-4 txikiek.



Euskadi azpi-17



Euskadi azpi-15



Euskadi azpi-12

# DANOK BAT ETA GETXO, EUSKAL KOPAREN TXAPELDUN

*2018-19 denboraldia gazte eta kadeteen kategorietan Euskal Koparen finalak jokatu zuten. Txapelaren tituluak Danok Bat eta Getxorentzat izan ziren.*

**Raúl A. Collantes**

**D**anok Bateko gazteek eta Getxoko kadeteek Euskal Koparen txapelaren tituluekin amaitu zuten haien kategorietan, futboleko ederra izan den kanpainari amaiera bikaina emanaz.

Danok Bat eta Eibar final handira iritsi ziren Santutxu eta Arenas kanporatu eta gero, hurrenez hurren. Topaketa erabakigarria ekainaren 15ean jokatu zen Maionan. Fikako kluba txapel-duna zen ordurako eta titulua berresteko aukera baliatu zuen. Markagailuan aurreratu egin zen finalista duina izan zen eta ongi jokatu zuen talde armaginarekin aurka. Eibarrek berehala berdindu egin zuen eta lehenengo zati ona egin zuen, baina bigarren erori egin zen bi gol gehiago sartu baitzizkioten, 3-1 amaituz.

Kadeteen kategorian, garaipena Getxorena izan zen, finala etxean jokatu zuen Alavesen kontra, zeina, gainera, markagailuan aurreratu zuen. Bizkaitarrek azkeneko momentuan berdindu egin zuten eta arauzkodenbora amaitu zen 1-1 eta gero, hamaika metrotatik egindako jaurtiketak hasi ziren txapel-dunaren izena argitzeko. Getxo trebeagoa izan zen jaurtiketetan, garaipena lortu zuen txapel-dun amaituz.



Danok Bat gaztea, Euskal Koparen txapel-duna



Getxo kadetea, Euskal Koparen txapel-duna

## ARENAS ETA LEIOA, TALDE BERRIAK OHOREZKORAKO

**B**i talde bizkaitarrek gazteen kategorian gorenera igo zuten. Arenas eta Leioak denboraldi aparta egin zuten eta Athletic Club, Real Sociedad eta Danok Bat eskumendekoen atzetik geratu ziren, ezin baitziren igo. Aparta ere bai Bizkaitarrentzat Gazteen Euskal Ligan, non Gernikak lortu duen txapel-dun titulua, zeinak gazteen zilarrezko kategoriara jauzi egitea lortu duen. Deusto eta Barakaldorekin batera egingo du, Urbietako taldeak ezarri zuen erritmo gogorrari hurbiletik jarraitu zioten ekipoetako bi. Kadete autonomikoetan, titulua Real Sociedadentzat izan zen, azken jardunaldian Eibar eta Alaves garaitu zituenak. 2019-20 denboraldiari begira, ekipo-kopurua 16tik 18ra igaroko da bai Gazteen Euskal Ligan bai Kadeteen Euskal Ligan.





Real Sociadadeko jokalariek zaleen aurrean Koparekin posatzen

## REAL SOCIEDADEK ERREGINAREN KOPA IRABAZI DU ATLETICO INDARTSUAREN KONTRA

*Gonzalo Arconadaren neskek torneo bikaina egin zuten eta finalean faboritua eta orduko irabazlea zenaren kontra gailendu ziren, Atlético de Madrid.*

T. G.



Real Sociadadek 1991tik euskal futbolak lortu ez zuten arrakasta eskuratu zuen; urte horretan, Añorgak Erreginaren Kopa eskuratu zuen Bartzelonaren kontra (3-0). Donostiarrak haien lehenengo torneo irabazi zuten Athleticoren kontra irabaziz (2-1) Los Carmenes (Granada) estadioan jokatu zen finalean. Gainera, partida hasi eta ordu laudenera gol bat gehiago zuen. 19. minutuko Kiana Palaciosen berdinketa azkarra gakoa izan zen urduritasuna baretzeko. Bigarren den-

boran, ordu erdi falta zenean, Nahikari Garcieren gol erabakigarria iritsi zen eskuinkada batekin. Zuri-urdinek amaieraraino sufritu zuten, baina eutsi zioten. Zortzirenetan hasi zen bide bat. Realek Valentziari irabazi zion, luzapenean, Nahikariren gol bati esker (1-2). Gero, Rayo laurdenetan erori zen (4-0). Finalerdietan, Anoeta dotore jantzi zen donostiarrei laguntzeko. Sevillak porrot egin zuen (3-1) eta maiatzaren 11n larunbatarekin Real Sociadadek bere izena jarri zuen emakumezkoen futbol nazionalen Kopako bere lehenengo tituluarekin.

## ATHLETIC ETA REAL GOIKO POSTUENGATIKO BORROKAN IBERDROLA LIGAN

Athletic eta Realek goiko postuak eskuratzeko gai direla erakutsi zuten. Biek hiru puntuko aldearekin amaitu zuten, 50 eta 47. Bilbotarrek bosgarren postuan bukatu zuten Iberdrola Liga eta donostiarrak zazpigarrenean. Bi taldeek kanpaina gorabeheratsua egin zuten. Logikoa, gero eta gehiago eskatzen duen lehiaketa honetan. Kanpaina honetan zazpi klubek jokatu zuten mantentzeko norgehiagoka lau puntuko aldearekin. Joseba Agirrek zuzentzen dituen zuri-gorriak fidagarriagoak izan ziren Lezaman, eta 50 puntuetatik 30 eskuratu zituzten. Gonzalo Arconadaren zuri-urdinak ordea orekatuagoak izan ziren, 25 puntu egin zituzten Zubietan eta 22 etxetik kanpo.

## ALAVES, EIBAR ETA ATHLETIC B TALDEAK BIGARREN PRO MAILARA SALTO EMATEA LORTU DUTE

*Espainiako Futbol Federazioak sustatzen duen kategoria berriaren sorrerak urte gogor eta zorrotza ekarri du berekin titulua eskuratzeko lehiari dagokionean, baina lasaia, beheko postuetan, jaitsierarik gabekoa.*

**Txemi García**

**B**igarren Pro sortuko zela jakinarazi eta gero hasi zen zilarrezko kategoria. Espainiako Futbol Federazioak sustatzen duen kategoria berri ho-



rretara II. taldeko lehenengo lauak iritsi ahal izango dira. Liga berriarekin iragarri zen Bigarren Mailan jaitsierak deuseztatzen zirela eta, beraz, ekipo ugari lasaitua hartu zuten ez baitzuten mantentzeko borrokatu behar. Gure taldeetako hiru Bigarren Pro-ra igotzeko lau postuetan sartu ziren. Alavés, Eibar eta Athletic B-k borrokatu zuten txapelduna zen Osasunarekin batera Lehenengo Mailara igotzeko play off-an sartzeko aukera ematen duen postua eskuratzeko. Atsekabe garratzena gasteiztarrek izan zuten. Lehiaketa irabaztear egon ziren, baina azken-aurreko jardunaldian erori egin ziren gorritxoan zelaian eta haien ametsa nola galtzen zen ikusi zuten. Atzean geratu ziren Añorga, San Ignacio eta Bizkerre. Zazpigarren postua getxoztarrena izan zen, merezia aurreko denboraldian igo eta gero. Pixka bat beherago, bederatzigarrenean, amaitu zuten Aurrera Vitoriak eta azken aurreko postuan, Oiartzunek.

## TOLOSA TXAPELDUN ETA IGO DA, ETA ATHLETIC B-K EUSKAL KOPA IRABAZI DU

*Berazubiko taldeak urteetan egindako lana islatzea lortu du titulua eta nazionalera egindako igoera historiko batekin. Harekin batera Arratia, txapeldunordea.*

**Txemi García**

**T**olosak Euskal Liga zirrargarria irabazi zuen Arratiarekin puntu bateko aldea baino ez zuela, zeina txapeldunordea izan den bigarren aldiz jarraian. Baina oraingoan, gainera, beste sari bat lortu du: Bigarren Mai-



lara igotzea. Azken-aurreko jardunaldian, Imanol Caveroren neskek sinatu zituzten titulua eta igoera. Goraino zegoen Berazubi estadioan, urdinek Zarautzi gol mordoa sartu zizkioten (5-0) eta haien ametsa bete zuten. Lehiaketa zorrotza izan zen, astebururo jokoan zeuden puntuak eskuratzeko gogor lan egin behar izan zuten eta. Tolosa eta Arratiaren atzean, goiko postuak eskuratzeko lehia polita ikusi zen. Leioakok podiumaren hirugarren maila eskuratu zuen Pauldarrak eta Goierri ekipoen aurretik. Urrunago sailkatu ziren Barakaldo eta Betiko. Zarautzek, zortzigarrenak, pribilegiatuen eremua markatu zuen eta hauek atzetik amaitu zuten: Elorrio, Bizkerre B, Aurrera Vitoria B, Anaitasuna, Oiartzun B eta Hernani. Nahigabea Derio eta Mariñorena izan zen.

Biek urte zaila izan zuten, baina amaieraraino borrokatu zuten kategoría galdu arren.

Euskal Kopan, Athletic B-k berretsit titulua zuen. Finalean gailendu zen, Ellakurin (Llodio), Aurrera Vitoriaren aurka (3-0).

# LAU EUSKALDUNEN DIRDIRA, FRANTZIAKO MUNDUKO TXAPELKETAKO IZARREN ARTEAN

*Euskal futbolak duen kirol-ahalmena erakutsi du berriro, lau jokalaria Frantzian egin den munduko txapelketa femeninoan sartuz.*

Haritz \*\*



**F**rantziako Munduko txapelketa futbol jarraitzaileen arreta piztu du. Emakumezkoen futbola ikaragarria hazi da azken urteotan. Arlo guztietan aurrerapausu handiak eman ditu. Gelditu ezin daitekeen trena da. Bada euskal futbolak ez du atzean geratu gura. Klubak urteak daramate lanean eta ereindakoa jasotzen ari dira.

Duela lau urte, Kanadako munduko txapelketa, bost ordezkari izan zituen euskal futbolak: Ainhoa Tirapu, Leire Landa, Erika Vazquez, Eli Ibarra eta Irene Paredes aritu ziren. Lau urte beranduago Irene Paredesek baino ez du errepikatu. Paris Saint Germaineko futbolariarekin batera Nahikari Garcia, Mariasun Quiñones eta Lucia Garcia izan dira onenen artean.

### **Irene Paredes, izarra:**

Euskal futbolak inoiz izan duen futbolariarik onena da. Jokalari azkarra, indartsua eta

nortasun handiakoa da. Realean eman zituen lehen urratsak gorengo mailan. Ondoren erabakigarria izan zen Athletic liga txapeldun izateko. Eta azken hiru urteotan Paris Saint Germain talde boteretsuko zutabe nagusietako bat da -Txapeldunen Ligako hamaikako onenean aukeratu dute aurten-. Egun, munduko erdiko atzelari onenen artean dago. Espainiako selekzioko kapitainetako bat ere bada. Frantzian lau partidak osorik jokautko ditu. 27 urterekin lorpen handiak eskuratu ditu eta, gainera, bide luzea egiteko aukera du. Euskal Herriko futbol zelaietan lehen urratsak egiten ari diren gazte guztientzat ispilua da.

### **Nahikari Garcia, gol sena:**

Euskal futbolaren belaunaldi berriko ordezkari nagusietako bat. Gaztetasuna eta eskarmentua uztartzen ditu. Erasoan mugimendu biziak eta eraginkorrak ditu. Goletzaile aparta izateaz gain futbol gosea dauka. Irabazlea da. Realarekin Erreginaren Kopa irabazi du eta

nazioartean talde askoren arreta piztu du. Klub txuri-urdinak apustu gogorra egin du bere alde. Bere inguruan osatu gura du proiektu indartsua. Frantziako Munduko txapelketa asko jokatu du eta hazteko baliatu du.

### **Mariasun Quiñosen, itzalean:**

Realako atezainak ez du protagonismorik izan. Hala ere, Munduko atezain onenak dauden txapelketa parte hartzeko aukera izateak argi eta garbi erakusten du maila oso oneko atezaina dela. Nahikarirekin batera Realaren zutabe nagusietako bat da. Dohain oso onak ditu eta gaztea izanik atezain hobea izango da hurrengo urteetan. Euskal futbolak beti izan ditu atezain onak eta Mariasunek segida eman dio tradizio horri.

### **Lucia Garcia, bizia:**

Barakaldon jaio eta Asturiasen hazitako futbolari gazteak denboraldi bikaina osatu du. Athleticen pisu handia hartu du. 20 urterekin erasoko futbolariarik erabakigarriena izan da. Azkarra eta bizi da. Geldik egoten ez den horietakoa. Munduko txapelketa pizgarri gisa erabili du Espainiako aukeratzailerak. Txisparekin iritsi da txapelketara eta bikain erantzun du eman dioten konfiantzari.

### **Damaris eta Eunate, sari barik:**

Euskarria zein ezker hegaleko atzelaria Espainiako aukeratzailerak emandako lehen zerrendan egon ziren, baina azken aukeraketan kanpoan geratu ziren. Munduko txapelketa harmailatik ikusi duten arren, onenen artean lehia-tzeko maila dutela erakutsi dute. Euskal futbolak osasun ona baitauka.



ASTORE

# NOLA GOZATU UDAZ ONGI JANEZ

*Oporrak badatoz eta harekin eguzki-egunak, hondartza... baina gehiegikeriak ere bai, familiarterako eta lagunarterako bazkariak, beroari aurre egiteko izozkiak eta gauean festaren bat edo beste.*

**Ainhoa Prieto**

Izan ere, "salbuespen" horiek saihetsezinak izango dira, are gehiago, egin eta gozatzazun animatzen zaitut. Garrantzitsua da urte honetan zehar finkatu dituzun ohitura osasungarriekin jarraitzea, eta zure buruari gutziaren bat edo beste baimentzea, eta, biharamunean edo arratsaldeko ibilaldiarekin, konpentsatzea. Denboraldi osoan lan aparta egin duzu, gorde eta gozatu zure oporrak merezi dituzu eta.

## Ados, nola jarrai dezaket udan osasuntsu jaten?

Hona hemen ideia batzuk bero handia egiten duen egun hauetan elikadura-ohitura egokiak ziurtatzeko, zure maila fisiko



mantentzen lagunduko baitizute datorren denboraldira ahalik eta hobekien iristeko.

**Entsaladak:** Aukera bikaina dira barazkiak era fresko eta di-bertigarrian sartzeko. Sartu entsalada-plater bat bazkarian eta/edo afarian, eta bete kolorez gehi ditzaitezun begetal guztiekin.

**Snackak edo mokaduak:** Patata frijituak, izozkiak, gailetak... baino askoz aukera gehiago daude. Animatu snack osasungarri hauekin. Oso gozoak izateaz gain, oso erraz prestatzen dira: Barazki-cruditéak hummusarekin; Fruta eta barazkizko smoothieak; Fruta-broxetak; eta Marrubi eta platanozko izozki healthya.

Orain badituzu jarraibide erraz batzuk udan ongi elikatzen jarraitzeko, baina ez dugu aipatu beroa iristen denean oso garrantzitsua den kontu bat, hidratazioa.

Zalantzarik izan ez dezazun, argi esango dizut, aukerarik onena ura da, BETI. Beraz, ahaztu freskagarriak, zukuak, azukrearekin edo zero izanda ere, eta uraren alde egin beti. Bakarririk edan dezakezu, edo limoi eta menta pixka batekin nahasita eta izotzarekin har dezakezu adibidez, hori zure esku. Garrantzitsua da erregulartasunez edatea eta pixaren kolorearekin zure hidratazio-egoera kontrolatzea. Hori argia izan behar da ongi hidratatuta zaudela ziurtatzeko, ilunagoa bada, oso erraza da, ur gehiago edan eta berriro ere hidratatzen has zaitez.

Atzerrira bidaiatzen baduzu, kontuan hartzeko datu bat: botilako ura edan beti, gerora infekzioak eta digestio-ondoezak saihesteko.

Esandakoa, jarraitu urte osoan barneratu dituzun ohitura osasungarriekin, baina baimendu iezaiozu zure buruari gutziaren bat edo beste eta gozatu, eta datatu aipatutako snack osasuntsu horiek izugarri gustatuko zaizkizu eta.

**Euskadiko Futbol Federakundeko Kirol Dietista-Nutrizionista**



## ¿Cuánta seguridad necesitas?

No podemos asegurar que tu equipo gane este fin de semana...  
En cambio podemos ofrecerte la tranquilidad de estar siempre protegido. Con Surne tienes el seguro que se adapta a ti y a tus necesidades para todo lo que quieres proteger.

- Vida
- Jubilación
- Dependencia
- Bajo diaria
- EPSV
- Autónomos
- Accidentes
- Ahorro
- Inversión



bizkaiko medikuen elkargoa  
colegio de médicos de bizkaia  
SEURNECO  
ASEGURU-ARTERAKARITZA S.M.  
CORREDURIA DE SEGUROS S.L.



seguros a pensiones

BILBAO

Cardenal Gardoki, 1  
48008 Bilbao  
944 792 200

SAN SEBASTIÁN.

Easo, 7 · 1ºD  
20006 San Sebastián  
943 430 798

# BILBOK DENBORALDI ITZELA EGIN DU ETA 1. MAILA FEMENINO NAZIONALERA IGO DA

*Bilboko taldeak aparteko zenbakiak lortu ditu eta ligako titulua erdietsi du lehiaketako 28 jardunaldietan porrot bakar batekin.*

C. Zárate

**D**enboraldi honetan nabarmen gailendu den ekipo bat badago, hori Bilbo femeninoa izan da. José Andrés Muñozek zuzentzen duen taldeak denboraldi aparta egin du eta Bigarren Mailako Ligako titulua lortu du 75 punturekin eta



Bilbok Lehenengo Maila Femeninoan izena eman du

Lehenengo Maila Nazionalera igota.

Lorpen horiek guztiak zenbaki paregabeak dituzte atzean. Ligako 28 jardunaldietatik partida bakarra

galdu dute, hiru berdinketa eta 24 garaipen izan dituzte. 147 gol sartuta, taldean gol gehien sartu dituen ekipoa izan da eta haiei sartutako 42rekin, gutxien jaso dituztenen artean bigarrena.

Bilbok igoera eskuratu zuen ekainaren 8an Kanaria Handian, play off-eko kanporaketan gailenduta. San Ignacio polikiroldegian Preconte Telderen kontra 1-0 irabazi eta gero, 1-2 irabazi zuten Las Palmas Kanaria Handikoako Teror Udal Pabilioian, denboraldi osoan zehar borrokatu duten kategoria gorenerako igoera eskuratzeko. Lehen Mailara bueltatu dira, 2013-14an lortutakoaren ondoren.

Bestalde, Bigarren B maskulinoan, Lauburu Ibarrek denboraldi bikaina egin du, bigarren geratu baita 64 punturekin, txapelaketatik bira. Bizkaitar ordezkarien artean, Otxartabek kampiona aparta egin du, seigarren postuan amaituta, eta Zierbena hobetzen joan da eta zortzigarren bukatu du.

Laskorainek hamabigarren postuan bukatu du eta Santurtzi jaitsi da.

## BIGARREN MAILA FEMENINOA

**S**tilok galdutako kategoria berreskuratzea lortu du eta datorren urtean Bigarren Mailan jokatu du berriro. Bilbotarrek 88 punturekin irabazi dute Liga.

## GAZTEEN OHOREZKOA

**O**horezkoan, euskal ekipoak ongi jardun dira: Zierbena, hirugarren; Otxartabe, laugarren; Gora, seigarren; Eskoriatza, zazpi-garren; eta Ibarra, zortzigarren.

# ELORRIETAKO ETA GERNIKAKO, HIRUGARREN MAILAKO ETA EUSKAL LIGAKO TXAPELDUNAK

**E**lorrietako denboraldiko ekiporik gailenetako bat izan da. Igo berria izan arren, eskarmentu falta ez da oztopo izan, kategoria berrira bikain egokitu baita. Eta gainera garaipen bikoitza izan du Koparekin. Bilbokoek igoera-postuari uko egin zioten eta azkenean Kukuiaga Etxabarrarentzat izan da, zeinak Bigarren B-n jokatu duen. Puntu kopuru berdinarekin, Gernikako Euskal Ligaren txapelduna izatea lortu du. Iaz ere igotzeko borrokatu zuen ekipoa.



Kukuiaga Etxebarri Bigarren B-ra igo da

# KOPA, LAUBURU IBARRAKO KADETEENTZAT ETA ORDIZIA FEMENINOARENTZAT

*Lauburu Ibarrek  
Jarrillerosi irabazi zion  
kadeteen kategorian, eta  
Ordiziak Stilori  
emakumezkoen  
kategorian.*



Ibarrek Jarrilleros garaitu zuen kadeteetan

**C. Zárate**

Ordizia femeninoak Kopa konkistatu zuen Stiloren aurka, zeinak denboraldi honetan Bigarren Mailara itzultzeko txartela eskuratu duen.

Gipuzkoarrek 2-0 irabazi zieten bizkaitarrei. Kadeteen kategorian trofeoa lortu duena Lauburu Ibarra izan da, Jarrillerosen kontra 0-2 irabazita. Portugaleteko taldeak bi

final jokatu zituen asteburu berean eta, Euskal Kopa galdu zuen arren, bukaera ona izan zuen Bizkaiko Koparekin. Gazteetan ez zen lehia-ketarik egon.

## EUSKADI ESKARMENTU GEHIAGO DU ESTATALEAN

Euskal selekzioak gero eta hobe prestatuta daude eta aurtengo txapelketa estataletan eskarmentu gehiago eskuratu dute aurkari gogorren aurka jokatu. Horrela bada, kimu, haur eta kadeteen selekzioak ongi aritu ziren, eta azpi-19 ere bai, nahiz eta lortutako emaitza onak izan ez. Femeninoak ezin izan zituen Murtzia eta Valentzia menderatu.



# Goco Tour

Barrio Arregui - Polígono Cóndor - Edificio C  
48340 AMOREBIETA

Tfno.: (+34) 94 630 82 50 - 24 horas: **665 295 623**

E-mail: [gocotour@gocotour.com](mailto:gocotour@gocotour.com) - [www.gocotour.com](http://www.gocotour.com)

- Viajes: NACIONAL e INTERNACIONAL
- BODAS, CELEBRACIONES, CONGRESOS, etc.
- Vehículos de: 7, 18, 22, 29, 37, 40, 55, 59, 71 Plazas
- ADAPTADO MINUSVÁLIDOS (PMR)
- Servicio de TAXI



**DONOSTIÁN**

31 DE AGOSTO, 16  
Tf.: 943 429 390

NARRICA, 16  
Tf.: 943 422 681

SAN JERONIMO, 17  
Tf.: 943 420 919

# AYESTARÁN



**JOYERÍA AYESTARÁN  
CON EL DEPORTE  
EUSKALDUN**

# Ibéricos deluxé

*Delicatessen*

**ESPECIALISTAS  
EN CORTE DE JAMÓN EN EVENTOS  
(BODAS, COMUNIONES...)**



Tienda situada en  
San Sebastián (Donostia)  
Calle Narrika nº 31 Parte Vieja  
Telf.: 943 423 849

[www.ibericosdeluxe.com](http://www.ibericosdeluxe.com)

Aritz no sabía mucho sobre fútbol,  
pero quería vivir eso. Así que, con 6 años,  
le pidió a su aita que le llevara al estadio.  
Y aquel árbitro, con un "Rafa, no me j\*\*\*s",  
le hizo entender qué era un penalti y una expulsión.  
Y también, que ya no habría partido de Liga  
en el que no se iría un rato a **vivir en el país de:**



90 SON POCOS  
MINUTOS PARA  
TANTA EMOCIÓN

**MOCHILA  
DE REGALO**

**TARJETA  
VISA  
NAUTALIA  
GRATIS**

**PRECIOS  
Y DTOS.  
ESPECIALES  
PARA JUGADORES  
Y FAMILIARES**

**MEJOR  
PRECIO\*  
GARANTIZADO**



**HASTA 10%  
MESES DE  
FINANCIACIÓN**

Pásate por nuestras oficinas y preguntanos.

**Las  
VUELTAS DAN  
MUCHA VIDA**



**NAUTALIA**  
Bidaiak

BIZKAIA | Bilbao | Gran Vía, 75. T. 946 424 348 | Pza. San Fco. Javier, 1. T. 946 404 028 | Luis Power, 28 (Deusto). T. 946 438 003 | Pza. Santiago, 1 (Casco Viejo). T. 946 414 010 | Las Arenas | Mayor, 4. T. 946 424 682 | Basauri | Pedro Bilbao, 2. T. 946 414 508 | Galdakao | Juan Bautista Uriarte, 31. T. 946 416 405 | ARABA | Vitoria | CC Boulevard. T. 945 103 097 | GIPUZKOA | San Sebastián | Urbieta, 47. T. 943 104 924 | Irun | Pz. J.R. Agirretxe, 3. T. 943 104 342 | Eibar | Bidebarrieta, 18. T. 943 108 960 | Rentería | Av. Navarra, 63. T. 943 104 344 | Urretxu | Labeaga, 41. T. 943 109 878 | NAFARROA | Pamplona | Serafín Olave, 15. T. 948 104 638